


Errobotik euskal itsasbazzterera

Ibilbide guziak eskuragarri Turismo Bulegoetan ►►



MAILA
2

ERRAZ

ATHARRI

ITSASU



Errobi bazterretik eta herriko lehen mendi gainetik, distantzia eta zailtasun ertaineko ibilaldi kiroltsu horrek pasabide polita eskaintzen du.

Sentier et sommet du col d'Atharri

Abiatzeko bidea:


Herriko karrika nagusitik (« La Place » auzoa) frontoiera joan, horren itzulia egin eta hegoruntz joaiten den karrika hartu. 100 metro urrunago, eskuineko aparkalekuan sartu eta autoa bertan utzi.

0.23

Aparkalekutik ateratzean **D** 628743 - 4798876, eskuineko bidea hartu. Zuzen segitu zeharkatu beharko den Basaburuko errekaraino **1** 628661 - 4798503. Eihera eder baten aitzinetik pasatu. Atharriko mendira joaiteko bidea segitu. 2.00

Gaztainadi eder bat zeharkatu. Cinq-Cantons izeneko bidegurutzera **2** 628745 - 4798274 iristean, pareko pista hartu pentze eta oihan batetik segitzeko. Bide mundrunatu batera heltzen da pista. Eskuinaldetik zuzen segitu Atekagaitzako bidegurutzeraino **3** 629428 - 4798074. Eskuinera hartu, Laxia auzoraino Errobiko arrolak segitzen dituen bide pitoresko horretan. Eskuinerako bihurtzea hartu ondoren, auzoaren sartzean, zuzen segitu, jatetxe baten aitzinetik pasatu eta 50 metro urrunago, mendi mazelatik **4** 629562 - 4796803 igaiten den bidea hartu eskuinaldera. 2.25


Ondoko bide-adarkatzean, zuzen segitu pentzeen barna igaiten den xendratik pasatuz. Aitzinatze luze baten ondoren, zuzen segituz, saihestuko dugun pista bat gurutzatzen du xendrak. Baina ondoko bidegurutzean **5** 627973 - 4797401, ezkerredera hartu eta etxalde baten ondotik jaitsi bide mundrunaturaino. Eskuinera hartu Atharriko leporaino **6** 627588 - 4797533, ibilaldiaren puntu gorena. Lepoan, etxearen gibeletik pasatzen den pista hartu eskuinaldean, artzainen lurralde zabalak zeharkatzeko. Euskal kostara buruzko panoramaz gozatu. Etxalde multzo **7** 628023 - 4798142 baten heinean den bide mundrunatu batera idekitzen da pista. Eskuinaldera hartu 200 metroz eta zuzen segitu, oihanaren barna eta Cinq-Cantons **2** bidegurutzera doan pistan. Ezkerredera berriz hartu, joaiten hartutako bideen aztarnak aparkalekuraino segitzeko. 3.00



©IGN


D Itsasu,
Ateka Sanoki aparkalekuaS



GPS : 628743 - 4798876

 3 oren

Seinaletika


D -tik **7** -rat 

 9,2 km

 +410 m
 -410 m

Huts egin behar ez dena

- Atekgaitzako arroiak
- Errobi
- Basaburuko eihera
- Panorama Errobiko haranttoa eta euskal kostara buruz

 Animaliekin urruntasun zerbait atxiki

ATEKAGAITZ

Errobi eta Ateko arroien bazterretik doan mandazaintzako xendran, arrokan pikatua den pasabide hertsu batek haranttoa eta «mugaren haria» lotzen ditu. Leiadaz beterik, Atekgaitz izena hartu du pasabideak (Pas de Roland). Batzuek diote Karlomanoren iloba den Roland hura Orreagara joan zelarik euskaldunen kontra borrokatzera, ezin iraganezko arroka batek geldiarazi zuela. Bere «Durandal» ezpataren bidez, pasabide bat pikatu omen zuen orduan, soldaduek beren bidea segi zezaten. Beste batzuek diote arrokaren zilo hura Roland-en zaldiak eman uztarraren emaitza litzatekeela. Zernahi gisaz, bazter miresgarriak ikusteko balio du hurbiltzea.



Atekgaitz

Xehetasun gehiagorentzat:



Kanboko Turismo Bulegoa

Herriko etxeko etorbidea – 64250 Kanbo - Tel : 05.59.29.70.25
Mail : info@cambolesbains.com - Web : www.cambolesbains.com



« Guides randos 64 » zerrenda osoa: www.rando64.fr

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!

ZUEN IBILALDIA ONGI HAUTATU

Maila eta seinaletikak



Desmaila: ibilaldi bakoitzarentzat, igaite guziaz kalkulatuak dira.



Iraupena: ibilaldi bakoitzaren iraupena adierazgarri gisa erabiltzen da. Ibilaldiaren luzetasuna, desmaila eta menturazko zailtasunen arabera neurtzen da.



Ibilaldiak

Ibilaldiak zailtasunen arabera sailkatuak dira, eta gida orri bakoitzean koloreen bidez desberdinak dira.

Ibilaldien FF-ren gomendioak segitzen ditugu.

▶ 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Idealki familiarekin egiteko, ongi markatuak diren bideetan.

▶ oren baino guttiagoko ibilaldia
Ibiltari ohituentzat. Batzuetan desmailak edota guneko kiroitsuak.

▶ oren baino guttiagoko ibilaldia
Familiarekin egin daiteke. Bideetatik, batzuetan pasabide zailagoak.

▶ oren baino gehiagoko ibilaldia
Ibiltari esperientziadun eta kiroitsuentzat. Ibilaldi luze edota zailak (desmaila, pasabide gogorak).

Balizak segitu bide onean egoteko

Xendren balizak	Herri eta PR [®] -en xendrak	GRP [®]	GR [®]	VTT	Zaldiketa
Norabide ona					
Ezkerre hartu					
Eskuinera hartu					
Norabide txarra					

GR[®], GRP[®] eta PR[®] Ibilaldien Frantses Federazioak erregistratu markak dira.

Ibilaldi batzu kalitate eskakizunen arabera hautatu ditu Ibilaldien Frantses Federazioak, PR[®] labelaren pean.



Bidezidor seinaleak

Bideen GPS helbideak

Erreferentziako neurria:
WGS 84 - UTM 30T
Ibilbideen GPS bideak
telekargatu:
www.rando64.fr

GOMENDIO BALIAGARRIAK

▶ Meteo 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo www.meteofrance.com.

Errobitik euskal itsasbazterrerako bideetan zehar ibiltzeak errespetuzko jarrera bat eskatzen du natura eta lurralde horiek biziarazten dituzten gizon eta emazteei begira. Arau batzu errespetatu behar dira.

Natura zaindu

▶ Zuen hondarkinak atxikitzeke zaku bat hartu ▶ Fauna eta flora errespetatu ▶ Balizak dituzten xendretan egon

Zuen burua babestu

▶ Material egokirik gabe ez joan
▶ Bakarrik joaiteak arriskuak ditu
▶ Erreketatik datorren ura ez edan
▶ Meteo so egin

▶ Europako urgentziako deia 112

— *Jarduera eta jendeak errespetatu* —

▶ Hesiak berriz hetsi
▶ Xakurrarekin joaitea ez da komeni. Kasu guzietan, sokatik atxiki.
▶ Suak debekatuak dira
▶ Ibilaldien bazterretan diren jabego pribatuak errespetatu

Kasu !

Usa ehiza garaian (urritik azarorart), ehizaldietan (urte osoan zehar) eta lurra erretzean (abendutik martxorart), ibilaldi batzu saihestu behar dira. Turismo bulegoetan xehetasunak galdegin.

Egiteko gomendioak:



Gure xendrei buruzko iritziak

Eco-veille

Proposatzen dizkizuegun ibilaldiak arreta handiz hautatuak izan dira. Bideei dagokienez, zuen iritzi eta oharrak ongi etorriak dira atxikitzea edo mantentzea ahalbidetzeko. Zuen iritziak emaitza gonbidatzen zaituztegu Errobi Herri Elkargora deituz, 05 59 93 65 94.

Ecoveille[®] orria telekargatzen ahal duzue: www.rando64.com/ecoveille

Ecoveille[®].behaketa orri bat ere eskuratzen ahalko duzue.

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!